

kin bat edo beste lau maraiko baten erosi nai izan ebana, egoan iezarrita altara-aurrean; da, tširoak edo diru-bageak oi dabenez, andikiak ikusi ebazanean, iagiaz, beren iartokia eskini eutsen. Iru emakuma andikiak, latsa andi barik, itši eutsen emakuma zaarrari, iagi ta bee-ganean iezarten. Begiratu eben altarara ta jaren poza! eurak ipiñiriko lora ederrak zirean altarea geien apainduten ebenak.

Ain zuzen bere, goizeko lora arola ta ikola alkarren ondoan egozan: ontzitšu eder baten barruan bata, bestea barriz muna-bedar da iia-artean batu batu egin-da, burua erakusteko lotsarren.

Argiak isioten asi baiño lentšuago urreratu zan atsoa altarara; ta beren bedar-tšorteari mun egin da Andra Mariari samur samur begiratuaz, lora ederren atzeko aldean itši eban beren eskintsaria.

Lora-usain gozoa artu ebanean, lotsarren esan eutsan Mariari:

«Nere Ama, nik ere diru geiago iduki banu, lore obeak eskeiñiko niozkan.»

Lora ederrak beingo beingoan ezautu eban itšusia, ta ezautu ebaneko asi iakon berba-ernariak esaten:

«¿Ze aizek ekarri au onera? ¿Elkarrekin biziak algera, nere ondoren beti ibiltzeko? ¿Utikan! ¿Erri ontako zaldia ezaldute orain belarrik jaten? Enazazu ukitu, kirastu orrek.

—Badakit emen egoteko jaioa enaizena ¿baiño zer egingo det, ekarri egin naute-ta? Barkatu, laguna.

—¿Laguna ni, ire laguna? ¿Noiztik onera? Ezteza-kala itzik ere neri egin, zakar, itsusi, sutarako ere baliu eztekan orrek.»

Onenbeztegaz isildu zirean loraak eta asi zan irakastegitik abadea Mariari egun atako loraak eskinten. Andra Mariak orduan begiratu eutsen lora eskiniari ta bat batera zimeldu ta usteldu zirean lora ederrak. Lora ikola ta bedar zimel lagunak barriz, lurreko bedarkik eztaukan gizako usain gozo gozoa zeruraino bialduaz, Andra Mariaren biotz samurra poztu eben.

Ezta esatekoa zelango zauskadea artu eben neskatila arro arek, euren loraak igartuta ikusi ebazanean.

Biotz biotzetik urteniko adorea bear dabe Mariari eskinten iakazan loraak; osterantzean euren usaina zerura eldu-orduko, ikoldu ta zimeldu ta igartuten dira.

OARRAK, Lora bien ipuina obeto adierazoteak.—*Asala* gauza askori esaten iake: narruari, ur-ganeari ta zakona eztanari. Tšaramel edo plater zakonak izaten dira zukua (erderazko *sopa*) ta saldea artutekoak, tšaramel azalak barriz beste edozein iakitarakoak.—*Amabikoa* Markiña-aldean esan daroe erderazko *docena*-gaitik.—*Amatau* (Bizkaian), *itsali* (Gipuzkoan), *emendau* (Oñati-aldean) ta *itzungi* (Arabian) bat dira.—Bizkai ta Gipuzkoako *apaindu*-n ordez *arkoldu* esaten da gure Tšorierrin, *arkolau* Mundaka-aldean.—*Aremaitakoa* (b. g.) ta *Ave-Marietakoa* bat dira: iluntsean Andra Mariari arren egiteko ioten dan tšiliñari esaten iako.—*Arena* ta *arrena* ez-tira bardiñak. *Arena* esaten dautse batzuk *errosarioak* daukazan amarrekoari edo *misterioari*. Bost arenekoa ta amabost arenekoa dira Errosario osoa edo irurena. Lekeitio-aldean au. Tšorierrin *maila* esaten iako: bost mailakoa ta amabost mailakoa.—Bedar edo bedarkien artean *arola* esaten iako, beste gauza askon arteko *apots* edo *aputzari*: *aza* arolak, *ogi* apotsa. *Arroa*, *anditua*, *puztua*, *barru-*

utsa esan gure dabe.—Bizkaitar geienak esaten dogu *aurki* + *a* iarlekuagaitik; Gipuzkoar geienak *aulki* + *a*; Orozko ta Basauri-aldean *lankai* + *a*.

Baratzaina ta *ortulaua* bat dira.—*Berakatsa* (b) ta *baratšuria* (g) bere bat.

Zimela-ri Gipuzkoar batzuk eta Arratiarrak *tšimela* esaten dautse.—*Zur egon* (Markina, Arratia, Tšorierrin) edo *zurt egon* (Lekeitio-aldean) *adi egote*gaitik esaten da; baiña ardura andiko aditasuna esan gura dau *zur egoteak*. *Eperra baiño zurrago* esaten dabe batzuk, beste batzuk barriz *erbia baiño zurrago*, gizakume arretatsu ta begiratuagaitik. *Zurra*, zikotz edo zekenagaitik esaten da Gipuzkoan. Lapurdi-aldean *zuhur* gure *zur* edo *zuurr*gaitik.

Deskeila ta erderazko *quejoso* bat dira.

Eskuturra (b), *eskubitur* ta *eskumuturra* (g) bat dira. *Garoa*, ez bakarrik iruntz-urari, baita euri lanbroari edo gorriña-euriari bere esaten iako. Doniane-inguruko euriak izaten dira gorriñatsuenak.

Ikola da *arola* ezta. Batzuk *iskola* esaten dabe; beste batzuk *tšikola* (Arratian, Markiñan, Tšorierrin).—*Iia* edo *iza* esateko, *ziporra* esaten dabe Durango-aldean, *ia* Gipuzkoan, *zia* Tšorierrin da Arratian. Onen artean arrak eta emeak dagozala esan oi da: arrak una eukiten dabe, erpiñean edo garan lora-antzekoa, ta argi egiteko balio izaten dabe. Augaitik Oñati-aldean argi-mutillak esaten iake *zia* arrai.—Gipuzkoarren *inguma* ta Bizkaiko *pirtšilota* (Tšorierrin), *mitšelela* (Mundakan), *tširibia* (Markiñan), *tširibiri* (Mogelek) Arabako *tšipilela*, Lapurtarren *pinpiriñak*, eta Zuberotarren *tšinkoi-loak* bat dira.—*Itšusi*-n ordez *itsusi*, *ezain*, *mots*, *itšurga*, *zatarra* toki askotan esan oi dira.—*Iezarri* (b.) ta *eseri* (g) bat dira.

Kirris-karras zapata-zoruen otsagaitik esan daroagü.

Lakirio (Lekeitio-aldean), *lakio* (Tšorierrin), *lazo* (?) beste askok.—*Lamaiko*, lau maraiko-gaitik askok esaten dabe edo eben, diru au egoanean. Beste askok *laukoa*.

Maiatzena (b. g.) Maiatzeko lenengo eguna da. Batzuk *Maiatena* esaten dabe. Egunduegaitik esne-eguna dala esatea, ona nundik datorren. Batzun ustez, egunduegaitik esne-eguna dala esatea, urte guztian ezeida buruko miñik eukiten. Beste batzun ustez barriz, *sarna* edo *ats* da *eskabi* ta onetarik azal-erik ezeidabe urte atan bat ioten. Onako gauzetan siñiztuteagaitik bata ta bestea esanarren, eztabe beñik bein, *eleziñoe*-aurreko berba labanak siñiztuteak legeez, kalterik egiten.—*Marroiz* (Lekeitio aldean), *narras* (g), *maras* (Arratian), *maiz* (Bizkai guztian) esaten dabe soñeko asko-erabili ta ezainduagaitik.—*Muna-bedarragaitik* batzuk *mota-bedarra* esaten dabe.—*Muskin* (Arabian, Markiña-aldean, Arratian), *mutšikin* (toki euotian da Gipuzkoan), *azuskin* (Mundaka-aldean) da *ondakin* (edonun) bardiñak dira.

Otzara, estura-ezkero *ogi-zara* edo *ogia* eukiteko *zarea* izanarren, gaur, Bizkaian beñik bein, edozein *zesto* (?) gaitik esaten da. Gipuzkoan *saskia*, satzak eukitekoa berez izanarren, edozeinegaitik esaten da. *Zara* da, gure ustez, erderazko *cesto*; ta *zara* esaten da Markiña-aldean goi-estu ta barru-zakonagaitik, *zarana* Arratian da Bilbo-inguruan. *Zarerdikoa* edo *sagardikoa* bere badago. Ta ganera *kopa* edo *kopaleta*, *otarra* (b. g.) *otarra-tšanbila* (Motrikun), *kopelotarra* (Itziarren), lurretan erabiltekoagaitik; *zimerea* esaten iako besotik ditzigilza erabiltekoari. *Arratza* esaten dautse arrantzale askok lau arroako otzara bati, besigu edo erroselak erabiltekoari. Arabian barriz *arratza* zikirio-l stoaz da laarraz egiten dan bati, estalki ta guztiko, *ogia* eukitekoari. *Arrazkoa* egiten da bae-ustaiari bildots-narrua ezarrita. Ganera badazauguz *tretzotzarak*, *otzara zabal* edo *leisiba-otzarak*, *Bilbo-otzarak*. Geiagon barri dakianak mesedez bialdu beiskuz.

Sasikoa (b. g.), *urikoa* (b.), *sasiko umea*, *Bilbo-umea*, *Azpeiti-umea*, *Donosti-umea*... ta ganera *borta* esaten dira Eliz-atzeko umeagaitik edo legezkoo eztanagaitik.

*Tšibi-azurr*gaitik *tšibi-azurra* esaten dabe batzuk. Arraiñ onen azurrautsa guztizko osagarri ona eida beteriak edo begietako miñentzako.

EUSKALZALEK VASCOFILLORI

Bilbon 1897^{ko} Maiatzan 4.^{an}

Eneban uste, adiskidea, orren gilbera ta gupera ta minbera ziñeanik. Tširrist giza-gaisoari, nor dan iakiñezkero, parkatu egin bear iakaz beren zirikadaak.

Esango dot zelan iazo zan gure arteko eztabaida-tšu au. Aspaldion nengoan zeure zerbait ikusteko gurarituta. Astiune gitši darabilt aspaldion; eta daukadantzauk bere neguko osarte edo eguzkialdiak legezkoo dira: ariñak, bizkorak eurennez, ta ganera geldiera-zaleak. Ta augaitik ioataz neure astiune-apu-

rrak, adiskideen eroapena, meetu ta eteteko zorian ipinten dodala. Tširristek ondo daki nire barri, bae-kusan nire guraria; ta lotsabakoak, zeuri zelanbait ia-rraituta, burua atara eragin eutsun. Auše da, geiagoko barik, gure artean gertariko.

Obeto izango zan neuk neurez berba ernariren bat zeuri esatea baiña zer da egitea? Urrengorako go-goan eukiko dot eta alegiñez etzara gure aldetik min-beratua izango.

Gatozan orain arira. Aspalditšuoñ zagoz isilik. ¿Zer dozu? ¿Gaisorik zagoz? ¿Eskuak manguitu iatzuz? ¿Ala uste dozu Euskalzalek nok-lagundu asko dauka-zala? ¿Ala euskereak iges egin dautsu biotzetik? Onen antzeko itaune asko gogoan nerabilzanartean, beste asko ebilzan iakin nairik asarratuta etezagozan, il ete-zarean, iaioa ala iaibagakoa, aragiduna ala gogo utsezkoa etezauguzan. Eztot uste euskerea eskerreko begian sartu iatzunik. Euskalzaleri zeutsan begi ona etzan orren arin galduko. Alegintšua egin dogu aspaldion geure arerioak bere bigunduteko. Benetako adiskideak, biotz-samurak izateko, eztabe onetariko bigungarrik bear izaten zeta zuk, noiz onena ta orduantše, aaztu, edo beiniñ bein aaztutzako ezaugarriak emon?

Euskalzalek Santu larri-eguna (1) eldu daiñean, etše-iaubeari eztautsa gabonkari andirik eroan al izango, urte-goienarik barrenarako aste guztietan apain apain urten nai dau-ta. Gaur-egunean barriz, ondo dakizu adiskidea, ur utsaz da aize otzaz da lau-zuriko oial-eun-mantarrakaz apaindutea gauza ga-tša da.

Batši-guzur bizi zan-baserri oskolean edo aldaurian, Satikan, edo onen antzekoren baten bizi bagiña, elitzake ain gatša izango gauza merkeakaz apaindu edo arkoldutea; baiña Bilbon, «brankileruak» (2) etšagun, iostunak Andra andi, «abuazilak» (3) «gobernadore» (?), zaltzaiñak alkate, morroiak ugazaba ta kale-garbitzailak kale-iaube dirudien uri onetan nok ur-ten, burua apainduta, brankilerutzat edo abuaziltzat edo zaltzaintzat edo morroetzat edo kale-garbitzaila-tzat euki nai ezpadabe?

Au ta guzti bere, Euskalzalek aspaldion iñok uste eban baiño iantziago ta arkolauago ta apaiñago kale-ra urten dau: batean Elizarako berbaldiak, bestean ipuiñak, bestean Maiatzeko loraak, soiñu ta guzti, da-riozala. Eta ain zuzen bere oraintše, begi geiagok aditu edo begiratu euskuela uste izan dogunean ¿Vascofillo guzaz aaztu?

Adiskidea, parkatu Tširrist-i.

Ezin ondo gomuta dot zein zan arako Bartzelonan edo nunbaiten dagoan antšña antšñako euskerazko irakurgaia. Zuk dakizula badakit. Urrengo geiren baterako bialduko bazeunst, guztiz eskertsua izango zenduke aurrerantzean bere zure adiskide

EUSKALZALE.

(1) Santu larri-eguna baserriar askok esaten dautse Santo Tomas abendukoaren egunari, egun atantše larri larri urte guztiko etše-saria emotera ioaten direalako.

(2) Tšikitan «brankileruak» esaten genduan erderazko «barquilleros» esateko.

(3) «Abuazilak» ordezko izen asko daukaguz: «amar-gizona», edo «amarren-gizona», «amabia», «prostua», «meriñoa», «tšinela...»

IZKIRIMIRIAK

Bein, nunbaiteko emakuma-Bakartegi baten sartu zan neskatiña gaztetšu bat, bizi bizia bera ta guztizko argia.

Egun gitši igaro-orduko, bakartarren Buru edo Abadesa (?) zanak io eutsan begia berari.

Beste lagun guztien artean bere, laster zabaldu zan guztizko burutsua zala.

Errimea etorrela ziñoen ikaskizun guztietarako ta batez bere latiniñerako...

Basterrak guztiak ikaraturik eukazan bere latiniñazo asarreaz...!

Egun aren baten ioan iaken oi ebanez, eurari eldu edo ikusi bat egitera, erri atako Eleizgizon bat.

Tšiliñ-otsa entzun eta Jesus esan-orduko, agertu iakazan geienak burdin-zaradun leio aundi baten atzean, aldra aundian.

Edozeiñek daki bakartarrak batez bere andrazkoak, guztizko barrizaleak oi direana; ta orduan bere asi zi-rean danak, tšingor-zaparrada bat zirudiala, itaun or-tik eta itaun emendik Eleizgizonari, esan leikeala ze, erleren batek umea bota ebala jain zan durundada andia guztien artean ateraten ebena!

EUSKALZALE paper tšikia ezta, baiña ezingo leuke barruan artu an esaniko itzaldi guztia, zeatz eta garbi iratziko bagendu. Ganera barriz aditu bere nekez egin zeikean, euren iardunean danak batera ziñoen.

Alako baten isil-samartu zirean eta Abadesa edo nagusiak esan eutsan Elizgizonari:

(*Abadeseak*). Don Kazinto, emen daukagu ba mon-jatšu sartu-barri bat, latiniñan bape makurra eztana. Berori be... errimia eida onlako gauzetan baiña... eztakit ba... estutu-ezkero, gaztetšu onek-e, berori be... larri erabiñiko ezeteleukian...

Elizgizonak.—¿Bai ete?

A.—Baietz uste dot. ¿Itandu beišo ia zer edo zer?

E-G.—¿Zein da gero berori?

Au entzunagaz batera agertu zan danen artetik, leio-aurrera, neskatiña gazte, mardo bat begi argi argi batzukaz.

E-G.—¿Zu zara aiñ errimia latiniñan e?

(*Monjeak*) ¡...!

(Danak egozan isil isilik.)

E-G.—Tira ba..., esaiguzu *Aita guria* latiniñez.

Eztarriaz egin karraskadatšu bat eta aboska zoli zoliaz asi zan esaten:

M.—Pater noster, qui es in cœlis, *santifizoter* (1) nomen tuum, adveniat regnum tuum, fiat voluntas tua, sicut in cœlo et in terra.

Santifizoter poliñ ori entzun ebanean, nai ta nai ez urten eutsan Don Kazintori irri-barretšu batek; baiña ezeutsan ezer esan gura izan.

(1) Sanctificetur.